

**Elgoibarko Izarraren**

**Plan Estrategikoa  
2014-2016**

## 0. SARRERA

Elgoibarko Izarrak hurrengo hiru urteetan lortu eta egin nahi duenaren bide-orria da honako hau. Zer eta zelan egin nahi duen azaltzen duen dokumentua. Zer egin behar dugun argi izateko prestatu dugu Plan Estrategikoa. Nora joan nahi dugun jakin eta bidean ez galtzeko iparorratza da.

Hori bai, dokumentu honek ez dauzka atek eta leihoak itxita. Egin nahi dugun ibilbidearen mapa da, bai, baina horrek ez du esan nahi hortik mugitu ezin garenik. Zorrotzak izango gara erabaki dugunarekiko, baina malguak ere bai bidean aurrera goazen heinean aldaketak edo moldaketak egiteko aukerari atek itxi gabe.

## 1. HAUSNARKETA ESTRATEGIKOA EGITEKO LAN-PROZESUA

Ikus dezagun dokumentu honen osatze-prozesua zelakoa izan den eta zeinek parte hartu duten:

- Idazkaritzan landu eta idatzi da hasierako dokumentua.
- ZTren iritzi eta ekarpenekin osatu da lehen borradorea edo proposamena.
- Kontratupean dauden bazkide profesionalei aurkeztu zaie proposamena eta haien ekarpenak jaso dira.
- ZBk bere ekarpenak egin dizkio dokumentuari, eta behin-behineko proposamena prestatu da.
- Gogoeta-taldeak ere bere ekarpenak egin dizkio.
- Bazkideen Batzar Orokorraren oniritzia jaso du.

## 2. HAUSNARKETA ESTRATEGIKOAREN EMAITZAK:

Zer da hurrengo hiru urteetan Elgoibarko Izarrak egin eta lortu nahi duena? Hori da atal honetan aztertuko duguna. Dokumentuaren amaieran zehaztu ditugu hiru urteetarako erronkak, estrategiak, helburuak eta arduradunak, baina hona, aurrerapen moduan, datorrenaren laburpena.

Dauzkagun baliabideak eta aukerak azertu ondoren, lau erronka nagusi jarri dizkio Elgoibarko Izarrak bere buruari ziklo berriko lehen hiru urteetarako:

- Elgoibarko Izarraren bueltako hizkuntz komunitatea osatzea.
- Elgoibarko Izarra ekonomikoki bideragarria izatea.
- Elgoibarren euskararen erabilera areagotzea.
- Elgoibarko euskalgintza artikulatzen hastea.

**1) Elgoibarko Izarraren bueltako hizkuntz komunitatea osatzea.** Komunitate sendo eta osasuntsua artikulatu behar dugu Elgoibarko Izarraren barnean. Elkarreak proiektuak eta egitasmoak prestatzen eta martxan jartzen segitu behar du, baina izateari eta eragiteari orain arte baino garrantzia handiagoa eman behar diogu aurrerantzean. Komunitate moduan artikulatu behar dugu, elkarreak bere zentralitatea berreskuratu eta euskalgintzaren egile-eragile izan dadin.

**2) Elkarrea ekonomikoki bideragarria izatea.** Elgoibar euskalduna(goa) izateko egin eta lortu nahi dugunak baliabide ekonomiko handiak eskatzen ditu, eta elkarreak bideragarria izan behar du ekonomikoki. Elgoibarko Izarraren jarduna bideragarria izatea izango da bigarren erronka.

**3) Euskararen erabilera areagotzeko proiektuak eta egitasmoak prestatzea.** Euskararen erabilera sustatzea izango da gure zeregin nagusietakoa, eta, hori lortzeko, estrategia batzuk definitu ditugu. Horiek ahalik eta eragingarrienak izateko ahalegina egitera goaz.

**4) Elgoibarko euskalgintza artikulatzea eta saretzea.** Elgoibarko euskaldunon etorkizunaz arduratuko den komunitatea artikulatu eta saretu nahi dugu. 50 urte barru Elgoibar herri euskalduna izan dadin konpromiso kolektiboa hartzeko prest dauden elkarte, erakunde, enpresa eta bestelakoen sarea osatzen eta artikulatzen hasi nahi dugu hurrengo hiru urteetan.

Oharra: lehen hiru erronkei aurreikusten diegun lan-karga dela-eta, ez dugu laugarren erronka garatzeko lan-planik zehaztuko 2014rako. 2014ak zer eman duen ikusi eta baloratu ondoren erabakiko dugu 2015ean laugarren erronkaren ateak zabaltzeko moduan izango garen ala ez.

\*\*\*


*Oharra: dokumentuaren amaieran dator esandakoa osatuago jasotzen duen eranskina. Bertan, lau erronkak ez ezik, estrategia, helburu eta ekintza nagusiak ere badatoz.*

### 3. ANTOLAKETA - EREDUA

Elgoibarko Izarrak onartu berri duen *Oinarri filosofikoak* dokumentuan jasotakoa aintzat hartuta, honako hau izango da hurrengo hiru urteetarako onartu dugun antolaketa-eredua. Alabaina, organoak, bakoitzaren funtzioak eta funtzionamendu orokorra azaltzen hasi aurretik, ideia bat argi laga nahi dugu:

**Bazkide militanteak izango dira Elgoibarko Izarraren norabidea markatu eta erabaki estrategikoak hartuko dituztenak. Bazkide militanteak izango dira elkartearen dinamikako protagonistak, eta haien konpromisoa eta parte-hartzea dago segidan ikusiko dugun antolaketa-ereduaren oinarrian. Bazkide profesionalek euren funtzioak eta betebeharrak izango dituzte, orain arte bezala, baina elkarte bazkideena da, eta bazkide militanteek emango diote bizitza mugimenduari.**

#### 3.1. Organigrama:



## 3.2. Funtzioak, funtzionamendua eta erabaki-ahalmena:

### ***Batzar Orokorra:***

- *Definizioa:* Bazkide guztiak biltzen dituen elkarteko organo gorena da.
- *Funtzioa:* Elkartearen norabidea erabakitzea eta erabaki estrategikoak hartzea.
- *Zeinek osatuko dute?* Bazkide guztiei egingo zaie Batzar Orokorrera azaldu eta parte hartzeko gonbita.
- *Funtzionamendua:* Urtean behin bilduko da, gutxienez, eta behar izanez gero, gehiagotan konbokatzeke aukera ere izango da, ZBk hala erabakiz gero.
- *Erabaki-ahalmena:* Batzar Orokorra da erabaki-ahalmen nagusia duen organoa. Bertan hartuko dira elkartearen gaineko erabaki estrategikoak.
- *Arduraduna:* lehendakaria.
- *Koordinatzailea:* dinamizatzailea.

*Oharra: Batzar Orokorraren gaineko bestelako informazioa elkarteko estatutuetan dago jasota.*

### ***Eremu Sinbolikoa:***

*Definizioa:* Elkartearen bihotza eta bizkarrezurra da. Elkartearen dinamikari eragin eta eutsiko diona. Elkartearen barruan bereziki zaindu eta elikatu beharreko organoa izango da. Elkartearen izaera, borondatea eta helburuak bere baitan jaso eta horiek inguruan zabalduko dituen bazkide-sarea.

*Funtzioak:* Plan estrategikoak aztertu eta proposamenak lantzea; Zuzendaritza Batzordeari laguntza eta babesa eskaintzea; elkarteko erreferentzia izatea, bai barrukoentzat eta baita kanpoan daudenentzat ere; elkarteko egile eta eragile nagusia izatea.

*Zeinek osatuko dute?* Organo honetako kide izateko nahia duten bazkideek osatuko dute Eremu Sinbolikoa. Bazkide guztiek izango dute Eremu Sinbolikoko kide izateko aukera, eta horretarako borondatea dutenek osatuko dute organo hori (bazkide militantea edo profesionala izan).

ESko kide direnek organo horrentzat prestatutako dinamikan parte hartzeko prestutasuna erakutsi behar dute. Burua (jakintzarako formazio-saioak), bihotza (sentsibilizazio-jarduerak) eta eskuak (konpromisoa eta parte-hartzea) landuko dira ES sendo eta eragingarria osatzeko helburuarekin, eta dinamika horretan parte hartzeko prestutasuna izan behar dute.

Hiru urteotan 25-40 laguneko Eremu Sinbolikoa osatzea izango da helburua.

*Funtzionamendua:* Gutxienez urtean behin bilduko da, Plan Estrategikoaren segimendua egiteko, baina beharra dagoen guztietan bilduko da, ZBk proposatuta. Horrez gain, ESk bere dinamika propioa izango du, esan dugun moduan, ES sendo eta eragingarria osatzeko prozesuan.

*Erabaki-ahalmena:* Erabakiak hartzeko baino gehiago, gogoetarako eta hausnarketarako taldea izango da Eremu Sinbolikoa. Hori bai, Eremu Sinbolikoaren gogoeta-saioak, normalean, erabakiak hartzeko giltzarriak izango dira.

*Arduraduna:* Dinamizatzailea izango da Eremu Sinbolikoaren arduraduna eta eragilea, inguruan aholkulari-talde bat izango badu ere.

### ***Zuzendaritza Batzodea:***

*Definizioa:* Urteko kudeaketa-planak aztertu, erabaki eta zaintzeko organoa da Zuzendaritza Batzordea.

*Funtzioak:* Hirurteko plan estrategikoak eta urteko kudeaketa-planak Batzar Orokorrari proposatzea, eta Batzar Orokorrak onartu ondoren, betearaztea; urteko kudeaketa-planari lotutako erabakiak hartzea edo hartzen laguntzea; dinamizatzaileraren, kudeatzailearen eta ataletako arduradunen aterpea edo babeslekua izatea.

*Zeinek osatuko dute?* Estatutuek diotena errespetatuz, honako hauek dira Zuzendaritza Batzordea osatuko duten karguak:

- Lehendakaria
- Lehendakariordea
- Idazkaria
- Kudeatzailea
- Dinamizatzailea
- Saitetako arduradunak (2)
- Mahaikideak (2)

Bazkide-militanteak izango dira hauek: lehendakaria, lehendakariordea, idazkaria eta bi mahaikideak.

Bazkide profesionalak izango dira hauek: kudeatzailea, dinamizatzailea eta sailetako arduradunak (2). Zuzendaritza Batzordea 9 lagunek osatuko dute.

*Funtzionamendua:* Printzipioz hilean behin bilduko da Zuzendaritza Batzordea. Hala ere, behar den guztietan ere bilduko da, presidenteak hala deituta. Zuzendaritza Batzordeko karguak hiru urterako izango dira, eta kudeaketa-planarekin batera berrosatuko da.

Zuzendaritza Batzordea berritzeko sistema: hiru urtetik behin Zuzendaritza Batzordeko bazkide militanteak aldatu egingo dira, parte-hartzea eta konpromisoa sustatzeko helburuarekin. Indarrean dagoen Zuzendaritza Batzordearen ardura izango da berria landu eta proposatzea, eta Batzar Orokorrak onartuko du.

*Erabaki-ahalmena:* ZBren erabaki-ahalmena urteko kudeaketa-planari lotuta dago, batez ere.

### ***Dinamizatzzailea:***

*Definizioa:* Elkartearen norabide filosofikoa landu, proposatu eta zainduko duen bazkide profesionala da dinamizatzailea.

*Funtzioak:* Elkartek egin beharreko bidea urratu, landu eta proposatzea da dinamizatzailearen funtzio nagusia, bere eguneroko zereginetan hamaika zeregin edo lan izango baditu ere (ikus atal honen amaieran koadroa).

*Erabaki-ahalmena:* Idazkaritza- eta betearazpen-zereginei lotutako erabaki-ahalmena izango du dinamizatzaileak. Erabakiak hartzeko baino gehiago, bideak urratzeko eta proposamenak lantzeko dago dinamizatzailea.

### ***Kudeatzailea:***

*Definizioa:* Elkartearen bideragarritasun ekonomikoa sustatu, landu eta zainduko duen bazkide profesionala da kudeatzailea.

*Funtzioak:* Elkartearen bideragarritasun ekonomikoari eta Barne Araudiari lotutako gaiak kudeatzea izango da kudeatzailearen funtzio nagusia.

*Erabaki-ahalmena:* Berea da ekonomiari eta giza baliabideei lotutako erabakien ardura. Erabaki garrantzitsuek Zuzendaritza Batzordearen babesa beharko dute, eta Batzar Orokorrarena ekonomiari lotutako erabaki estrategikoek.

### ***Sailak:***

Hurrengo hiru urteetan lau sail edo arlo nagusi izango ditugu, onartu ditugun hiru erronkak, estrategiak eta helburuak betetzen joateko helburuarekin. Ikus dezagun sail bakoitzaren ardura edo zeregin nagusia zein izango den.

*Idazkaritza:* Elkartearen norabidea eta filosofia landu, proposatu eta zaintzea izango da idazkaritzaren zeregin nagusia. Plan Estrategikoan eta kudeaketa-planetan erabakitakoaren zaintza eta segimendua egitea.

*Ekonomia-saila:* Elkartearen bideragarritasun ekonomikoa sustatzea izango da sail honen ardura nagusia. Horretarako hainbat estrategia eta helburu prestatu eta markatu ditugu, eta horiek denak kudeatzea izango da sail honen zeregin nagusia.

*Komunikazio-saila:* 21 urteko ibilbidearen ondoren, BARRENen bueltako proiektu komunikatiboa berridazteko ordua dela erabaki dugu. Hedabideen eta komunikabideen sektorea eta gizartea asko aldatu dira 20 urteotan, eta egungo beharrei eta ezaugarriei lotutako komunikazio-proiektua prestatu eta martxan jarri nahi dugu. Hurrengo hiru urteetan proiektu horren oinarriak finkatzea izango da hedabide-sailean parte hartuko dutenen ardura eta zeregin nagusia.

*Atxutxiamaika saila:* Elgoibarko txikienak eta nerabeak euskalduntzeko gure ekarpena egitea izango da atal honen zeregin nagusia. Aisialdia lantzen segituko dugu

orain arte bezala, baina beste bi lan-lerro ere zabalduko ditugu: familia-plana eta elkarte-erakundeak.

Sail bakoitzak bere funtzionamendu propioa izango du, bakoitzaren ezaugarriak eta egitekoak kontutan hartuta.

### ***Sailetako arduradunak:***

*Definizioa:* Elkarteak hurrengo hiru urteetan izango dituen lau sailetako arduradunak dira. Sail bakoitzak arduradun bat izango du, eta bazkide profesionalak izango dira laurak.

*Funtzioa:* Bakoitzak bere arduran daukan sailaren (eta saileko proiektuen) izaera eta egitekoak kudeatzea eta sustatzea izango da sailetako arduradunen zeregin nagusia.

*Zeinek osatuko dute?* Sail bakoitzak arduradun bat izango du, bazkide profesionala izango dena.

*Erabaki-ahalmena:* Egunerokotasunari eta sail bakoitzari lotutako barne-erabakiak sail bakoitzean errendituko dira, ahal den guztietan, eta saileko arduradunak izango du horren erantzukizun nagusia. Urteko kudeaketari lotutako erabaki garrantzitsuak, berriz, Zuzendaritza Batzordean edo Zuzendaritza Batzordearen oniritziarekin hartuko dira.

### ***Sailetako lantaldeak:***

*Definizioa:* Sail bakoitzak dituen lanak eta ardurak betetzeko osatuko diren lantaldeak dira. Bazkide profesionalak eta militanteak nahasian egongo dira, sail bakoitzaren izaera eta egitekoa kontuan hartuta.

*Funtzioa:* Sail bakoitzaren helburuak eta funtzioak ahalik eta ondoen betetzea izango da sail bakoitzaren egitekoa. Egitekoen artean, besteak beste:

- Sail bakoitzean iritziak, aholkuak eta laguntza eskaintzea.
- Sail proiektuetako zereginetan parte hartzea.
- Sail bakoitzaren funtzio eta helburuen segimendua eta zaintza egitea.

*Zeinek osatuko dute:* Lantaldea bakoitza bazkide profesionalek eta bazkide militanteek osatuko dute. Sailetako lantaldeetan oinarri filosofikoetan onartu ditugun bi parte-hartzeak sustatuko ditugu.

*Funtzionamendua:* Sail bakoitzak bere funtzionamendu propioa izango du, sailaren ezaugarriak eta eginkizunak kontuan hartuta. Hori bai, funtzionamendua erabakitzeko orduan aintzat hartuko da bazkide militanteen konpromisoa eta parte-hartzea sustatzea dela lantaldeen oinarrietako bat.



*Erabaki-ahalmena:* Erabakiak hartzeko baino, sailtako arduradunei erabakiak hartzen laguntzeko daude lantaldeak. Arduradunei iritziak eta aholkuak emateko, hauek haiei dagozkien erabakiak har ditzaten.

### ***Langile-batzarra:***

*Definizioa:* Elkarrean kontratuean dauzkan bazkide profesionalen batzarra da.

*Funtzioa:* Batzarraren funtzioa izango da, besteak beste, bazkide profesionalak euren artean hitz egiteko foro bat izatea; langileek dituzten kezka edo arazoen gainean berba egiteko espazioa izatea; proiektuen edo egitasmoen aurkezpenak egin eta langileen iritziak jasotzeko tokia izatea; eta talde moduan kohesionatzeko abagune bat izatea.

*Zeinek osatuko dute:* Kontratua duten bazkide profesional guztiek izango dute langile-batzarrean parte hartzeko betebeharra.

*Funtzionamendua:* Langile-batzarrak ez du funtzionamendu finkorik izango. Beharra dagoenean elkartuko da, eta kasu bakoitzean erabakiko du zer eta zelan egin.

*Erabaki-ahalmena:* Ez du erabaki ahalmen berezirik izango (greba-kasuetan ez bada), baina erabaki-organoek aintzat hartuko dute langile-batzarraren iritzia hainbat erabaki hartzeko orduan (langileei lotutako kontuak direnean, bereziki).

### *Laburpen taula:*

<b>Organoa</b>	<b>Funtzioak</b>	<b>Zeinek osatuko dute</b>
Batzar Orokorra	a) Norabidea erabakitzea. b) Erabaki estrategikoak hartzea.	Bazkide guztiek
Eremu Sinbolikoa	a) Plan estrategikoak: proposamenak aztertu eta lantzea. b) ZBri laguntza eta babesa eskaintzea.	Nahi duten bazkide guztiek
Zuzendaritza Batzordea	a) Plan estrategikoak eta urteroko kudeaketa-planak Batzar Orokorrari proposatzea, eta onartutako betearaztea. b) Kudeaketa-planei lotutako erabakiak hartzea c) Dinamizatzailearen eta kudeatzailearen aterpea izatea.	Lehendakaria Lehendakari-ordea Idazkaria Kudeatzailea Dinamizatzailea Sailtako arduradunak (2) Mahaikideak (2)
Dinamizatzailea	Elkarteak egin beharreko bidea urratu, landu eta proposatzea.	
Kudeatzailea	Bideragarritasun ekonomikoari eta Barne Araudiari lotutako gaiak kudeatzea.	
Sailtako arduradunak	Sail bakoitzaren (eta proiektuen) izaera eta egitekoa kudeatzea eta sustatzea.	Saileko arduradunek (bazkide profesionalak)
Sailtako lantaldeak	Sail bakoitzak dituen egitekoak betetzea.	Bazkide-profesionalek eta bazkide-militanteek.
Langile-batzarra	Bazkide profesionalen komunikazioa, lankidetzeta eta kohesioa lantzea.	Kontratupean dauden bazkide profesionalak.

#### 4. LANTALDE PROFESIONALA ETA ARDURA-BANAKETA

Esan dugu aurretik ere Elgoibarko Izarrak etapa berrian ere langile profesionalak behar dituela erabaki duela. Elkarrekin langile profesionalak behar dituzten hiru urteetarako erabakitako erronkak, estrategiak eta helburuak behar bezala bete eta ekintzak antolatu eta egiteko.

Aurretik ere esan dugu etapa berriko oinarrietako bat bazkideen parte-hartzea eta konpromisoa sustatzea dela. Hori horrela izanik, bazkide profesionalak konpromisoaren eta parte-hartzearen eredu izan behar dute.

Besterik gabe, hona hurrengo hiru urteetarako aurreikusten dugun lantalde profesionala, bakoitzaren ardura nagusiak zein diren zehaztuta. Langile bakoitzaren lan-dedikazioa eta mailaketa ere zehaztu dugu, bakoitzaren lan-bolumena eta ardura-maila kontuan hartuta.

Lanpostua	Dedikazioa/ maila	Ardura eta lan nagusiak
Dinamizatzailea	37,5 ordu astean (* 1. maila	Plan Estrategikoaren segimendua. Oinarri filosofikoen zaintza. Pentsamendua: idatzi eta proposatzea. Eremu Sinbolikoa: osatu eta elikatzea. Komunikazioa + harrera-plana: Santa Ageda, Gotzon Garate, bertso-jaialdia, etab. prestatu eta burutzea. Formazio soziolinguistikoa: prestatu eta burutzea. Zuzendaritza Batzordearen koordinazioa. Lantalde profesionala kohesionatzeko ardura. Topagunea eta elkarrekin arteko zubi-lanak. Nazio mailako ekimenen koordinazioa. Saileko aurrekontuaren ardura.
Kudeatzailea	37,5 ordu 1. maila	Arloaren ardura. Bideragarritasun ekonomikoaren sustapena: <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Diru-laguntzen kudeaketa.</li> <li>▪ Zerbitzugintzaren sustapena.</li> <li>▪ Bazkideen diru-emanaren ardura.</li> <li>▪ Herritarren diru-emanaren ardura.</li> <li>▪ Baliabideen aprobetxamendua.</li> </ul> Giza baliabideen kudeaketa. Barne Araudiaren kudeaketa eta ardura. Langileen formazio teknikoaren ardura.

Komunikazio saileko arduraduna	37,5 ordu / 1. maila	Hedabide-sailaren ardura profesionala. BARRENen komunitatea sortzeko ardura. Saileko lantaldea osatu eta koordinatzeko ardura. Saileko aurrekontuaren ardura. Tokikom eta BARRENen arteko zubi-lanak. Kazetari-lanak. Saileko formazio teknikoaren ardura.
Atxutxiamaiakako arduraduna	37.5 ordu / 1. maila	Proiektu hauen ardura: <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Gurean Bai (haurrak eta nerabeak)</li> <li>▪ Familia-plana.</li> <li>▪ Nerabeen plana (ikastetxeekin).</li> <li>▪ Aisialdi-plana.</li> </ul> Atxutxiren komunitatea sortzeko ardura. Saileko lantaldearen ardura. Saileko formazio teknikoaren ardura. Ekipamenduen (ludoteka-gaztelekua) ardura.
Administraria	37.5 ordu / 2. maila	Diruen kudeaketa. Administrazioa eta kontabilitatea. Memoria ekonomikoen egikaritzea. Diru-laguntzak justifikatzea. Ardura fiskala. Ikastolen jaiak. Erosketa orokorrak. Lan-arriskuen prebentzioa. Telefono-harrera.
Atxutxiamaiakako dinamizatzailea	37.5 ordu 2. maila	Atxutxutxiamaiak saileko egikaritze-lanak eta dinamizazioa-ardurak. Saileko aurrekontuaren ardura. Saileko materialaren ardura. Familia-planaren programazioaren ardura. Aisialdi-planaren programazioaren ardura. Bertso-eskolaren ardura.
Ludoteka-Gaztelekuko koordinatzaileak	1.606 ordu urtean	Zerbitzuaren ikasturteko plangintza prestatu eta gauzatzearen ardura Zerbitzuaren segimendua egitea: memoriak... Harreman-sareak zaintzea. Lantaldearen ardura. Aurrekontuaren zaintza.
Ludoteka-Gaztelekuko BBetako hezitzaileak	944,7 ordu	Plangintza aurrera eramateko ardura. HPBak dituzten haurren jarraipena: gurasoak, balorazio-fitxak... Zerbitzuaren jarraipena egitea: memoriak... Haurren jarraipena egitea.

Ludoteka-Gaztelekuko hezitzaileak	858,25 ordu	Plangintza aurrera eramateko ardura. Zerbitzuaren jarraipena egitea: memoriak... Haurren jarraipena egitea.
Komunikazio saileko kazetaria-1	37.5 ordu 2. maila	Estilo Liburuaren ardura. Mendaroko sailen eta lanen ardura. Kazetari-lanak.
Komunikazio saileko kazetaria-2	37.5 ordu 2. maila	Elgoibarren.net-en koordinazioa. Mediatekaren ardura. Elkarteko web-orriaren eta sare sozialen elikadura. Banaketaren arduraduna.
Komunikazio saileko diseinatzailea	37.5 ordu 2. maila	BARRENEko maketazio-lanen ardura. Elkarteko diseinu-lanen ardura. Inprenta-lanen ardura. Artxiboaren ardura.
Komunikazio saileko komertziala	37.5 ordu 2. maila	BARRENEko publizitatea. Zerbitzu-saileko komertziala.

#### Oharrak:

1. Egun osoko dedikazioa astean 40 ordukoa da gurean, baina gaur egun 37.5 orduko lan-astea daukagu giza-baliabideetako diru-gastua gutxitzeko.
2. Koadroan azaltzen direnak lanpostu bakoitzaren ardura edo zeregin nagusiak dira. Ardura edo zeregin horiekin batera beste hamaika lan eta zeregin ere izango dira, baina horiek denak sail bakoitzak antolatuko ditu bere erara.

## Soldatak eta mailaketa

Hauek dira egun osoko dedikazioa duten langileen hurrengo hiru urteetarako soldatak, onartu ditugun bi mailak kontuan hartuta:

1. maila	1.657,59 euro + antzinasuna
2. maila	1.574,55 euro + antzinasuna

Soldata hauek 40 orduko lan-asteari dagozkio. Aurreko oharrean esan bezala, soldatak horiek badira ere, aurrekontuak osatzeko arazoek eraginda, baliteke soldata horiek ordaintzeko aukerarik ez izatea elkarteak. Une honetan, soldatetan gastatzen duguna gutxitzeko helburuarekin, bi erabaki dauzkagu hartuta: bat, dedikazio osoa 37.5 ordura daukagu jaitsita, eta, bestetik, soldatak % 5 jaitsi ditugu (1.476 euroan geratu da lehen mailako soldata, eta 1.402 euroan bigarrena). Egoera ekonomikoak hobera egingo balu, kontratupeko bazkideen lan-baldintzak hobetzeak izango luke lehentasuna, dedikazioa 40 ordura bueltatuz, eta soldataren % 5eko jaitsiera bertan behera lagata.

## ERRONKAK, ESTRATEGIAK eta HELBURUAK

<b>1. ERRONKA: ELGOIBARKO IZARRAREN BUeltako HIZKUNTZ KOMUNITATEA OSATZEA ETA SARETzea</b>	
<b>ESTRATEGIAK</b>	<b>HELBURUAK</b>
BAZKIDEEEN KONPROMISOA ETA PARTEHARTZEA SUSTATUZ	BAZKIDEEEN KONPROMISOA ETA PARTEHARTZEA SUSTATUKO DUEN PROIEKTUA MARTXAN JARTZEA
	LANTALDE PROFESIONALAREN KOHESIOA LORTZEA
	EREMU SINBOLIKOA OSATU ETA SARETZEA
	GERO ETA BAZKIDE GEHIAGO IZATEA
HEDABIDE PROIEKTUAREN BUeltAN KOMUNITATE SENDO BAT OSATUZ	HEDABIDE PROIEKTUA BABESTU ETA SUSTATUKO DUEN KOMUNITATEA SARETZEA
ATXUTXIAMAIAKAREN BUeltAN KOMUNITATE SENDO BAT OSATUZ	ATXUTXIAMAIA SUSTATUKO DUEN KOMUNITATEA SARETZEA

<b>2. ERRONKA: ELGOIBARKO IZARRA EKONOMIKOKI BIDERAGARRIA IZATEA</b>	
<b>ESTRATEGIAK</b>	<b>HELBURUAK</b>
DIRU-LAGUNTZAK MANTENDUZ EDO GEHITUZ	ELKARTEAREN ETA UDALAREN ARTEKO HARREMANAK SUSTATZEA
	UDALAREN DIRU-LAGUNTZAK MANTENTZEA EDO GEHITZEA, ETA UDALAREKIN LEGEALDIRAKO HITZARMENAK LORTZEA
ZERBITZUGINTZA SUSTATUZ	DIRU ETEKINAK EMANGO DITUEN ZERBITZU-GIDA OSATU ETA ESKAINTZEA (HERRIA, HERRI ARTEKOA ETA TOPAGUNEA)
BAZKIDEEEN ETA HERRITAREN DIRU-EMANA GEHITUZ	HURRENGO 3 URTEKO ESKAINTZEN PREZIO-SISTEMA MARTXAN JARTZEA
	ELKARTEA DIRUZ LAGUNDUKO DUTEN ALIATUAK ETA MESENAZAK TOPATZEA
	AUTOFINANTZAKETA EKINTZAK ANTOLATZEA
	BAZKIDE-KUOTAK EGUNERATZEA
	BARREN KOMUNITATEA OSATZEA
ELKARTEKO BALIABIDEEN APROBETXAMENDUA OPTIMIZATUZ	BAZKIDE PROFESIONALAK ENPRESA BATEAN BILTZEKO AUKERAK AZTERTU, HAUSNARKETA EGIN ETA ERABAKIA HARTU
	AURREKONTUEN BUeltAKO IRIZPIDE EKONOMIKOAK ZEHAZTEA
	BAZKIDE PROFESIONALEN LAN-SISTEMA HOBETZEA
	ELKARTEKO LAN-FUNTZIONAMENDUA HOBETZEA

<b>3. ERRONKA: ELGOIBARREN EUSKARAREN ERABILERA ETA EUSKALDUNTASUNA AREAGOTZEA</b>	
<b>ESTRATEGIAK</b>	<b>HELBURUAK</b>
HEDABIDEI LOTUTAKO PROIEKTUA BERREGITURATUZ	BARREN ASTEKARIAREN ETA ATARI DIGITALAREN PROIEKTUA DEFINITU ETA PRESTATZEA
	BAZKIDEAK ETA HERRITARRAK PROIEKTUAN INPLIKATZEA
UMEEN ETA NERABEEN MUNDUA EUSKALDUNDUZ	FAMILIETAN ERAGITEA
	AISIALDI ESKAINTZA SENDOA ETA IRAUNKORRA ESKAINTZEA
	UME ETA NERABEEN ESPARRUAK EUSKALDUNTZEA
	IKASTETXEEKIN ELKARLANEAN JARDUTEA
	13-17 URTEKO NERABEEN EUSKAL KONTZIENTZIA SUSTATZEA
18 URTETIK GORAKOEN EUSKALDUNTASUNA SUSTATUZ	GAZTE-HELDUEN EUSKAL KONTZIENTZIA AREAGOTZEA

<b>4. ERRONKA: ELGOIBARREN EUSKARAREN ETA EUSKALDUNON ETORKIZUNAZ ARDURATUKO DEN HERRI KOMUNITATEA</b>	
<b>ESTRATEGIAK</b>	<b>HELBURUAK</b>
HERRIKO ERAKUDE EUSKALTZALEEN ARTEKO HARREMANAK SENDOTUZ	UDALAREKIN HARREMANA-KOMUNIKAZIOA SUSTATZEA
	ERAKUDE-ELKARTE EUSKALTZALEAK HARREMANTZEA
EUSKARAREN ETA EUSKALDUNON ETORKIZUNA DENON ARDURA DELA SOZIALIZATUZ	ELKARTE ETA ERAKUNDEETAKO JENDEA KONTZIENTZIATZEA
ELGOIBARKO EUSKALTZALEON JABEKUNTZA-KONFIDANTZA LANDUZ	EUSKARAREN ARDURA HARTUKO DUEN GUNE SINBOLIKOA EGITURATZEA
	GERO ETA GEHIAGO IZATEA HERRI KOMUNITATEAN